

HIRIGINTZA FITXA. - 28 SO. ITZIARKO MENDEBALDEKO SAIHESBIDEA

DEBA ALDEA

1. HIRIGINTZA INFORMAZIOA. AURREKARIAK.

Itziarrerako sarbide berri bat da, egungo sare lokala ordezkaturako duena, Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauak hari esleitu dion funtzionaltasunaren arabera.

1.1. GARAPENeko PLANEAMENDUA.

Ez dago.

1.2. UDALAZ GAINDIKO PLANEAMENDUA.

Ez dagokio ez Errepideen Plan Orokorrari ez Gipuzkoako Errepideen Lurralde Plan Sektorialari.

1.3. HIRI EGITURA.

Lurraldearen egitura organikoa eratzen duen elementua.

1.4. ESPARRUAREN AZALERA: 5.949 m²

2. HIRIGINTZA ERREGIMENA.

- 2.1. LURZORUAREN SAILKAPENA : Hiritarrezina.
2.2. KALIFIKAZIO OROKORRA : Komunikazioen sistema. Bide sareak. Hiribide nagusia (11. artikulua: E.1.3).
2.3. ALDERDIEN MUGAKETA : Hiri Antolaketako Arauen dokumentuan jasotakoa da, eta trazatuaren proiektuaren arabera aldaketak egin ahal izango zaizkio.

3. PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDE ETA HELBURUAK.

3.1. KALIFIKAZIO XEHEKATUA.

Hasiera batean, bi zona ezarriko dira:

- Bideko jabari publikoko zona: plataforma lerro horizontala da (ezpondak paratu baino lehen).
- Babes zona: 8 metro jabari publikotik.

3.2. ORDENANTZA XEHEKATUAK.

Udal ordenantzarik ezean, Errepideen Foru Arauan (17/1994 FA) xedatutakoari jarraituko zaio.

3.3. PROBETXAMENDU, ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZAK.

Probetxamendua. Udal ordenantzarik ezean, 17/1994 FAren arabera.
Eraikuntza. Udal ordenantzarik ezean, 17/1994 FAren arabera.
Jabaria. Publikoa (Debako Udala).
Erabilera orokorra. Komunikazioak.
Erabilera baimenduak.

- Herritar guztien zirkulazio libreko jabari publikoko zona.

Zirkulazio edo iragatearekin bateragarria den beste edozein erabilera, esparruaren segurtasuna eta erosotasuna murrizten ez baditu (50. artikulua).

- Babes zona: Bide segurtasunarekin eta errepidea nahiz bidea mantentzearekin bateragarriak diren eraikuntzak eta erabilerak.

Zerbitzuguneak eta hornitegiak.
Kartelak, horma-irudiak eta idazkunak.
Itxiturak. Mugak.
Lurpeko hodieria.
Negutegiak.
Lurketak.
Baso sailak.
Airetiko lineak.
Udal bideak eta pasealekuak.

Udal ordenantzarik ezean, 17/1994 FAREN mugak izango dira aplikagarri.

Erabilera debekatuak:

- Jabari publikoko zona: gainerakoak.
- Jabari publikoko zona: gainerakoak.

3.4. EKIPAMENDU ETA HIRITARTZE BALDINTZAK.

Erakunde eskudunaren araberakoak (Debako Udala).

3.5. PLANEAMENDU ETA KUDEAKETA BALDINTZAK.

Erakunde eskudunaren araberakoak (Debako Udala).